

mea kulparik ez

I M A N O L

LEHEN ALDEA

UDAZKENA II

(Mikel Arregi)

Iratze etzanen musika,
hego haizetan korrika,
horbeliak dantzan eskribituen du-
udakentzen kronika,
iratzte etzanen musika.

Laino gorrixka lizeak,
gau-atarian goseak
ilunabarrez mila moretan
pintatzan ditu haizeak,
laino gorrixka lizeak.

Uztia bilzteko tenorez,
alor lizeak laborez.
Negu hotzaren atalburua
akaberaren kolorez,
uztia bilzteko tenorez.

Ilunabarren tristura,
asmo lizunen pintura.
Itxas gainean dardaraz dago
argiaren partitura,
ilunabarren tristura.

Sasi gainean loxutua,
baxarari eta masutia.
Haize epoletan kulunkantzen da
arantzako tarteak uzta,
sasi gainean loxutua.

UDAZKENA I

(Mikel Arregi)

Eder usok airean,
mendi-gailurren parean;
ori guztien argi ditirra
itzalizi gure aurean.

«Adio ene basoak»,
ihesi doaz usotak.
Negu-azkarak motelzen ditu
eguzkiaren pausok.

Kurriloak doaz hegan,
zeru altuan errenkan.
Mila desio kumpli ezinen
oihartzen hotza sorbididan.

Usok dira sarean
zorigaitzaren parean.
Pena basakak ezin zapatuz
nabil neure tolean.

Muinoko pago-tartakan,
uso-bandak arrastakan.
Urruti-minen itzal ezana
oroitzapenaren atakan.

OROMENEGO PORTUA

(Joseba Sarrionandia)

Ifar aldeko portu zaharra
Ekar deagun kantara:
Kale bustien sendimendua,
Edalontzien ikara.

Marinelen hirrotzak baina
Ginebra onaren dirdira,
Gau biluzia sartzen zitzaizun
Begi zabalen ninira.

Gau erdiaren eremuetan
Laban ahok aidea:
Izar isilen argi azpian
Odol beroa lurrera.

Txanpon berriez erosi eta
Amodioen jokera,
Ohe hustutan ezatzen ginen
Itsas lamien altzora.

Kanta lizunen alegantzia,
Akordeolen tristura:
Ez gara egundo, aii, itzuliko
Oroimeneko portura.

ILUN-IKARAK

(Mikel Arregi)

Ilun-ikarak azken argia
uxatu diru urrutira,
zeru-sapaian izar bakanak
itzal ezanei begira,
ilun-otintako sorgin-usaiak
epazioan dirdira.

Mendi-hegitan argi-oroitza
eguzkiaren keina,
baso beltzean hosto-firfira
gauzueken erreina,
itxasondoko tamarindotan
olatuaren erraina.

Itxas-txoriak txio-txioak
harat-honata haizetan,
berde argien edertasuna
more moteluz uretan,
txalupa geldu kulunkarien
isladarekin hitzatan.

Parke ilekoko banku txurra
ezpain bereen lankide,
antsi zaharrak zantzu berritan
bihotz gordinen senide,
tristura hegán pasatzen da
arratsaren solaskide.

Gau-ekzilaren oiartzun-hotza
irritatzen da kolkoan,
zurrara mutu baten gisara
maitateen soinekoan,
bakardadea sekretuekin
körtipiltzen den zokoan.

Itxas-aideak gesalez dakar
murmuriozko solasa,
suspiriotan ezin jarroz
pena lurruinduen hariz,
haize-boladak txikordatzen du
maiteminduen jolasa.

GALDERA HOTZEN ERANTZUN-EZA

(Mikel Arregi)

Galdera hotzen erantzun-eza
alkoholetan bustia
ezin irentzi, nora-ezean
dabil gizon bakartia,
nazka gordina baso-erdiari
bortxas hartzeria jaurtia,
dabil gizon bakartia.

Galdera hotzen erantzun-eza
bihotz-sapaian ozkia,
ilunabarrez telatuetan
odol gorri da ekia,
giza-eremu erisu honen
madarikua ta argakia,
odol gorri da ekia.

Galdera hotzen erantzun-eza
arrazoien minbizia:
adimenaren begi ezanzen
itzal ilun nahasia,
ikiltasunez jakin-gosea
saretzen duen hesia,
itzal ilun nahasia.

Galdera hotzen erantzun-eza
soiltasunean etzanda,
ezaren zirbil zimurtuetan
etsipen-marrunen galdia,
sukar sendakiaz itzira zorrotrak
bihotz-muinetan ezanda,
etsipen-marrunen galdia.

Galdera hotzen erantzun-eza
etzarririk auskika,
patu beltzaren zaunka zorrotrak
grabatuak intzirika,
bildur guztien mentu zaharrak
garunean karraixka,
grabatuak intzirika.

Galdera hotzen erantzun-eza
behabeztanetan mindua,
etsuasunen ezpain moretan
sargoriak opzindua,
arrastakako eskarmetuan
oharkabeen bildua,
sargoriak opzindua.

Galdera hotzen erantzun-eza
pentsamenduek kurlpila,
nahi-ezinez besabesaka,
ondoan malakor hurbila,
zorigaitzaren begi usatzen
osin-zuloan ur-bila,
ondoan malakor hurbila.

Galdera hotzen erantzun-eza
alkoholetan bustia
ezin irentzi, nora-ezean
dabil gizon bakartia,
nazka gordina baso-erdiari
bortxas hartzeria jaurtia,
dabil gizon bakartia.

BIGARREN ALDEA

NIRE EUSKALTASUNA

(Koldo Izagirre)

Nire euskaltasuna baso bat da,
eta ez du zahartz jemenajoririk.
Nire euskaltasuna dorre bat da,
eta ez du Allostorrenik.
Nire euskaltasuna bide bat da,
eta ez du zaldizkorik.
Nire euskaltasuna lahore bat da,
eta ez du aldarerik.
Nire euskaltasuna isasro bat da,
eta ez du almiranterik.
Nire euskaltasuna liburu bat da,
eta ez du sotanarik.
Nire euskaltasuna mundu bat da,
eta ez du Amerikarik.
Nire euskaltasuna bertsu bat da,
eta ez du txapelik.
Nire euskaltasuna pekatu bat da,
eta ez du mes-kulparik.

SEHASKA KANTA

(Mikel Arregi)

Sehaskan egizu lo,
bolona-molona,
izarrek eztaikite
non den zoria.

Jasotzizu eskuak
txalopin-txalopan,
mila izar ageri da
zeruko txalupan.

Behatzak mugitirik
krixkitin-kraxkitin,
ilargiak keinuka
egiten du berdin.

Begiak ikitzizu
ikus-makusi,
amautxiak oraindik
ezpaititu ikusi.

Ezpainetan farrea
irriño-mirriño,
eguzkiak adio
esan arteraino.

Aitaxoren gainean
trakatan-trakatan,
zaldi zuriak gauzez
harrapa etzaltzan.

Amatxoren besotan
aidean-maidean,
zerura hagaritzeko
kometa batean.

Torizu jostatzeko
bolon bal-bolon bi,
ilargia putzuan
etzadin erori.

IKUSI NUENEAN

(Juan Mari Lekuona)

Ikusi nuenean
nik zure aldea,
arain txikiak dei egiteko
eman dit gogoa.

Ikusi nuenean
nik zure okotza,
kopla berrien arara zaharrak
ohostu dit bihotza.

Ikusi nuenean
nik zure sudurra,
hainze garbiak orraztu zuen
ostapeko lurra.

Ikusi nuenean
nik zure masaila,
brontze gorritan eguna hasten
ez zegoen zaila.

Ikusi nuenean
nik zure begia,
dena alderantziz kausitzen nuen
hori da egia.

Ikusi nuenean
zure betazala,
olatu bitan zijoan zure
txalupa zabal.

Ikusi nuenean

nik zure kopeta:

.....
beste poema hain behariko
mereri du eta.

BAIONATIK BILBORA

(Koldo Izagirre)

Badu nora heldu,
ez du zeri heldu,
itsaso hutsa da
nire herria

Baionatik Bilbora
itsaso erra,
putzu honek
ez du itoko
gure haserrea.

Baionatik Bilbora
itsaso petrala,
aspaldi esan zidaten
besterik etzala.

Baionatik Bilbora
itsaso pobrea,
non du aurkitu behar
Euskadik hobea.

Baionatik Bilbora
itsaso aingura,
nadia zure alborra
oraindik ingura.

Baionatik Bilbora
itsaso zakarra,
baldin baneki nora
kamino bakarra.

Baionatik Bilbora
itsaso euskara,
humorea badanagu ta
galduak ez gara.

Baionatik Bilbora
itsaso Nafarra,
datorkigula burutik behera
amets honen afarra.

Baionatik Bilbora
hartzen du ekaitzak,
arrokak ongi dakizki
txaluparen gaitzak.

Baionatik Bilbora
itsaso gorria,
Baionatik Bilbora
gure memoria.

Bilbotik Baionara
alaba itsasoa,
igeri ez dakiena
ondoraino doa.

BAZTAN-GO LURRA

(Xabier Lete)

Baztan-go lurra
zagan arkitu nuen
paketa.

Zugarramurditik
indarrez zetozten
antziako ur garbien
murmurrean
nabaitu nuen
oraindik estali gabeko
bizitza sendo baten
edertasun guzia.

Maiatzeko leku paregabea,
gorputz-berritzearen
kimo-gartoa,
begi urdinen birbizta,
bide ezkutetan gora
eta gora
dijoa
herri zahar baten pausoa.

Zu, Baztan-go lurra,
noblea eta iluntasunik gabea,
udaberriko eguzkitan berotua,
lore berrien musika goxoa,
mendri tonorretan
xuriz jantzia,
zeihen lur ederra,
Baztan-goa.

Hiltzen naizenean,
gurutzerik gabe,
pake-paketa,
bertso xamur batzuen arzipan,
hantxen nahi nuke betiko loarretza

